

KONTUEN BATZORDE ZENTSOREAREN TXOSTENA **EH BILDU FEDERAZIOA - 2019KO EKITALDIA**

MANDATUA:

Txosten hau uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoak, alderdi politikoen finantzaketari buruzkoak, 15. artikuluan ezarritakoa betetzeko idatzi da. Hain zuzen ere, honako hau ezartzen du artikulua:

«Alderdi politikoek barne-kontrolerako sistema bat ezarri behar dute, eduki ekonomikoko eskubideak eta betebeharrak sortzen dituzten egintza eta dokumentu guztien kontu-hartze eta kontabilizazio egokiak bermatzen dituen beren estatutuen arabera. Auditoretza horren ondoriozko txostena Kontuen Auzitegiari aurkeztu beharreko dokumentazioari erantsiko zaio».

Mandatu hori EH BILDU Federazioaren indarreko estatutuen 25. artikuluan jaso da eta, bertan, kontuen batzorde zentsorearen figura ezartzea hartu da barne. Estatutu-manu horrek batzorde honi ematen dio kontabilitatearen kontrola eta ikuskapena, EH Bilduren baliabide ekonomikoen eta ondare-baliabideen erabilera egokia eta formazio honen gobernu-organismoek egiten dituzten eduki ekonomikoko egintzen estatutu-legezkotasuna bermatzeko ahalmena.

Joan den 2017ko ekainaren 17an EH BILDU Federazioaren 1. Biltzarrean egindako estatutu-aldaketak onetsi ondoren ezarri zen kontuen batzorde zentsore hau. Biltzarrean bertan izendatu gintuzten batzordekideok, bozketa izendunez, hain zuzen ere: Iñaki Ostolaza Esnal, Lore Agirre Zipitria eta Beñat Amutio Aranceta.

Batzorde honen funtzioa estatutuetan ezarritakoa da, alegia, eduki ekonomikoko eskubideak eta betebeharrak sortzen dituzten egintza eta dokumentu guztien kontu-hartze eta kontabilizazio egokiak bermatzea eta gobernu-organismoek egiten dituzten eduki ekonomikoko egintzen estatutu-legezkotasuna ikuskatzea eta bermatzea dagokio.

Horregatik guztiagatik, 8/2007 Legea eta EH BILDU Federazioaren estatutuen 25. artikulua betetzeko, eta EH BILDU Federazioaren I. Biltzarrean (joan den 2017ko ekainaren 17an egindakoan) gauzatutako izendapenaren arabera, txosten hau idatzi dugu:

2019KO EKITALDIKO KONTABILITATE-FISKALIZAZIOKO TXOSTENA

ARAU-ESPARRUA:

Fiskalizazio-txosten hau idazteko, arau hauek hartu dira kontuan:

- EH BILDU Federazioaren estatutuak.
- Uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoa, alderdi politikoen finantzaketari buruzkoa.
- Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzkoa.
- Formazio Politikoetara Egokitutako Kontabilitate Plana.

AZTERTUTAKO DOKUMENTAZIOA:

Kontuen batzorde zentsore honek, bere funtzioa betetzeko eta txosten hau idazteko, dokumentu hauetarako sarbidea izan du:

- Zuzenbidearen mende dauden eta lotura ekonomiko eta finantzarioa duten dokumentuak.
- EH BILDU Federazioaren kontabilitate-liburuak.
- Bankuko saldoak eta egoera-orriak.
- Formazioko gobernu-organoek hartu dituzten eta lotura ekonomiko eta finantzarioa duten erabakiak.

FISKALIZATZEKO, KONTROLATZEKO ETA IKUSKATZEKO ERAGIKETAK:

Fiskalizazio hau garatzeko esparruaren abiapuntua da federazioko administrazio-organoei dagokiela administrazioa, haiek arduratzen baitira aurrekontuen administrazioaz eta kudeaketa ekonomiko eta finantzario arruntaz, diru-sarreraren kontrolaz, ondare-kudeaketaz eta kargu publikodunen eta kontabilitate-kontuak egiteko arduradunen araubide ekonomikoen jarraipenaz.

Halaber, haien araubide ekonomikoaren eta ondare-araubidearen fiskalizazioa eta kontrola sistema honi jarraituz egingo da:

Kontuen batzorde zentsore honek administrazio guztia auditatu eta ikuskatuko du, eduki ekonomikoko eskubideak eta betebeharrak sortzen dituzten egintza guztietan kontu hartuko du, berrikuspena burututakoan txosten bat egingo du eta kontuen fiskalizazio zuzena bermatzeko behar diren gomendioak eta doikuntzak ezarriko ditu.

Batzordeak, agindu zaizkion funtzioak betetzeko, behin aurreko apartatuan aipatutako dokumentazio guztia aztertuta, informazio guztia berrikusi du, datuak gurutzatuz eta erkatuz.

Alderdi hauetan jarri da arreta berezia:

- Eskubide eta betebeharrak ekonomiko guztiak kontabilitatean behar bezala islatu direla egiaztatzea.
- Kontabilitatean islatzeko modua Formazio Politikoetara Egokitutako Kontabilitate Planaren arabera izan dela egiaztatzea.
- EUSKAL HERRIA BILDUREN kontabilitate aztertuak Federazioaren egoera ekonomikoa fideltasunez islatzen duela egiaztatzea.
- EH BILDU Federazioaren estatutuetan, araudietan eta berezko erabakietan ezarritakoak harreman ekonomikoetan izan duen betetze-maila egiaztatzea.
- Batzar Nagusiak arlo ekonomikoan emandako irizpenen betetze-maila egiaztatzea, biltzarren artean federazioko organo gorena baita.
- Indarreko legeriak, 7/2008 Lege Organikoak nagusiki, izan duen betetze-maila egiaztatzea.
- Zuzendaritzako kargudunei eta koalizioaren ordezkari diren kargu publikodunei ezarritako araubide ekonomikoa betetzea.
- Bideragarritasun-planen eta kutxako aurreikuspenen betetze-maila egiaztatzea.
- Zerga-betebeharren betetze-maila egiaztatzea.

DIRU-SARREREI BURUZ:

EH BILDU Federazioaren diru-sarrerak bi motatakoak dira: izaera pribatukoak eta finantzaketa publikoko iturrietakoak.

Izaera pribatuko diru-sarrerak:

EH BILDU Federazioak jasotzen dituen diru-sarrera pribatu gehienak BILKIDEEN (federazioko militanteen) kuoten eta kargu publikodun batzuen ekarpenen emaitza dira.

Batzorde honek egiaztatu du BILKIDEEN kuoten sarrerak zentralizatuak izan direla. Kuota horiek zuzenbidearen arabera eta Federazioaren estatutuetan eta araudietan ezarritakoa zorrotasunez betez kudeatu eta ordainarazi dira.

Kargu publikodunen ekarpenak ere modu zentralizatuan egin dira eta legean ezarritako moduan kobratzen dira, xede horretarako berariaz irekitako kontuetan.

Zentralizazioak eraginkortasun handia dakar.

Izaera publikoko diru-sarrerak:

EH BILDU Federazioaren jatorri publikoko diru-sarrerak erakunde publikoetatik datozenak dira eta Federazioak erakundeotan duen ordezkartzaren edo hauteskunde-emitzen ondoriozkoak dira.

Erakundeetako ordezkartzaren ondoriozko diru-sarrerak legebiltzar-taldeek, batzar-taldeek eta udal-taldeek kudeatzen dituzte nagusiki.

Funtzionamendu-gastuetarako diru-sarrera publikoak horretarako xedatutako kontuetan sartu dira.

Aurten hauteskunde-prozesuak izan dira bereziki azpimarragarriak: orokorrak, tokikoak eta foralak.

GASTUEI BURUZ:

Urteko gastuen aurrekontua aurreikusitako moduan idatzi da eta benetan egindako gastuak behar bezala onetsi ditu finantzen arduradunak ordaindu baino lehen.

Illo horretan, ondoriozta daiteke alokairu guztiak, kontratu guztiak eta abar behar bezala formalizatu dituela EH BILDUKo finantzen arduradunak, Federazioko zuzendaritzak onetsitako kontratazio-oinarrietan ezarritakoari jarraituz eta bertan ezarritakoa betez.

2019ko ekitaldiari dagozkion urteko aurrekontuak EH BILDUKo mahai politikoak onetsi ditu.

Finantza-sailak aurrekontuaren likidazioaren jarraipen-txostena bidali dio hilero zuzendaritzari, hilabete bakoitzean jasotako fakturen eta hartutako betebeharren zerrendarekin batera.

Horrela, Federazioak dauzkan kontrol eta ikuskapen ekonomikoen aurreikuspenak fideltasunez bete dira.

Bestalde, toki-erakundeek dagokien aurrekontua eduki dute esleituta, EH BILDUren estatutuetan eta barne-araudietan ezarritakoari jarraituz, eta autonomiaz erabili dute. Erakunde horien gastuek ere jarraipen-prozedura bat izan dute, zeina lurraldeko koordinatzaileen bidez gauzatu baita.

ZERGA-KUDEAKETA:

Foru-ogasunekiko harremanak finantzen arduradunaren bidez gauzatu dira.

Zerga guztien aldizkako likidazioak modu telematikoan egin dira, bestela ezin izan zitekeenez, eta ordainketak Federazioak horretarako xedatuta dauzkan banku-kontuen bidez egin dira.

Zehazki, aurreikusitako epeetan, formazioak aitortpen hauek aurkeztu ditu, eredu normalizatu hauetan formalizatuta:

- 110 eredua, langileen PFEZaren atxikipena.
- 115 eredua, alokairuen atxikipenak.
- Sozietateen gaineko urteko zerga.
- 347 eredua, hirugarrenetik eragiketen urteko eredua.
- 182 eredua, afiliatuen eta kargu publikodunen kuotak.
- 190 eredua, PFEZaren urteko informaziorako eredua.
- 180 eredua, alokairuen atxikipenen urteko informaziorako eredua.

Eredu horietako gehien-gehien zenbakiak berdinak diren arren, batzuek aldaketak izaten dituzte kasuan kasuko foru-ogasunaren arabera, eta formatua desberdina da guztietan.

ONDORIOAK:

Egindako egiaztapen eta fiskalizazioko eragiketetatik, eta jasotako eta aztertutako dokumentazioaren irismenaren barruan, honako hau ondoriozta daiteke:

Eskubide eta betebeharrak ekonomiko guztiak behar bezala islatu dira kontabilitatean.

Eragiketa ekonomikoak kontabilitatean islatzeko modua Formazio Politikoetara Egokitutako Kontabilitate Planaren arabera eta bertan jasotako irizpideen arabera izan da.

EH BILDU Federazioaren estatutuetan, araudietan eta berezko erabakietan ezarritakoa harreman ekonomikoetan bete da.

Batzar Nagusiak arlo ekonomikoan emandako irizpenak ondo bete dira, biltzarren artean federazioko organo gorena baita.

Alderdi politikoaren finantzaketari buruzko legerian ezarritako betebeharrak ekonomikoak eta legalak, bereziki 7/2008 Lege Organikoan araututakoak, bete direla uste da.

Zuzendaritzako kargudunei eta koalizioaren ordezkari diren kargu publikodunei ezarritako araubide ekonomikoa desadostasunik gabe bete da.

Bideragarritasun-planen eta kutzako aurreikuspenen betetze-maila onargarria izan da.

Zerga-betebeharrak eta gizarte-betebeharrak ondo bete dira.

2019. urteko kontuen barne-auditoretza egin ondoren, aztertutako dokumentazioaren arabera, ondoriozta daiteke kontuek fideltasunez islatzen dutela ekitaldiaren amaierako egoera ekonomiko eta finantzarioa, eta batzorde honek ez du eskatu aldaketa nabarmenik egiteko.

GOMENDIOA:

Kontuen batzorde zentsore honi berrikuspena egindakoan txosten hau egitea dagokio, baita kontuen fiskalizazio zuzena bermatzeko beharrezkoak diren gomendioak eta doikuntzak ezartzea ere.

EUSKAL HERRIA BILDUren egiturak eta kontrol-ereduak bermatzen dute egintza guztiei egokiro kontu hartzen zaiela eta kontabilizatzen direla, bere estatutuen arabera eta indarreko araudia betez. Hala ere, 2019ko ekitaldian hauteskunde-prozesu ugari izan direnez, gomendagarria da zenbait hauteskunde-prozesu izan daitezkeen geroko ekitaldietarako batzorde hau indartzea eta horretarako mekanismoak ezartzea.

Eta txosten hau Donostian idazten dugu, 2020ko ekainaren 28an, Federazioko zuzendaritza politikoak aztertu eta analizatu ondoren onetsia izan dadin, egokitze jotzen bada, kontuan izanik Kontuen Auzitegiari bakarrik dagokiola alderdi politikoaren jardura ekonomiko eta finantzarioa kontrolatzea.

KONTUEN BATZORDE ZENTSOREA